


Supazter ondoko gaualdia

Koldo Amestoy-ek idatzia

Kattalin Sallaberry-k kontatua



Beren sortetxeko jabearen anaia zenetz, etxean Otto deitzen zuten. Adin ederreko gizon honek Pettan izena zuen. Auzoko etxaldera noiznahi jinik ere beti ongietorria zen. Etxekoek berehala lan zonbait obratzeko asmatzen zioten eta Pettan beti prest zen xintxuketa zonbait lotzeko, baratzean aritzeko edo auzoekin alorretako lan dorpeenen partekatzeko. Lanegun horietan langileak bazkaltzera gomitatuak ziren baina Pettan afaltzeko ere egoten zen.

Afalondoan, familiakoak supazter xokoan plantatzen ziren. Bertan zeunden amatxi, bere alaba, etxekandere gaztea, suhia, etxeko jauna, hauen hiru haurrak eta bistan dena Pettan. Denborarekin arrunt etxekotua zen eta tokikoen artean kokatzeko plegua hartua zuen.

Amak arratseko otoitzarekin hasten zuen gaualdia. Denak amatxiren inguruan gurutzeari begira jartzen ziren. Azken halabiz ozenak denak libratzen zituen eta bakoitza bere alki edo ttottoan jartzen zen.

Gero amatxik, bere aldia zelako, hitza hartzen zuen, papaita bat botatuz. Arrapostu ona atzeman behar zen honekin hasten baitzen arratseko kalakaldia.

Ondotik amatxik ipuintxo bat kondatzen zuen. Bururatu eta aitak kantu bat abiatzen zuen denek elgarrekin xaramelatzeko gisan. Gero, bigarren papaita baten ondotik amatxiren bigarren istorioa entzun zezaketen. Pettan, begiak ñir ñir eta irriño bat ezpainetan, bere tokitik isilik entzuten zuen eta amatxik bururatu orduko papaita ezezagun baten jalgitzera menturatzen zen. Denak mututurik uzten zituen enigma ezin zilatuz. Pettan, bere xokoan irritsu zegoen eta iduri zuen bere begiek amatxi kitzikatzen zutela hartaz doi bat trufatuz.

- Are haurrak, ohera! Amak hitz hauekin markatzen zuen lehen denboraldi honen bukaera.

-Ez, ez, ez!, erantzuten zuten hurrek. Amatxi beste bat, beste bat!

Amatxi isilik egoiten zen baina Pettani keinu bat egiten zion eta gizona berehala beste istorio baten kondatzen hasten zen.

Pettanek, hitzak publikoari eskaintzearekin ez zuen sekulan ahanzten amatxiri behako baten zuzentzea eta honek bere so eziaz eskertzen zuen. Istorioa amaitua zenean, amak bere etxekandere boz larderiatsuarekin berriz botatzen zuen:

- Are haurrak! Goazen ba!

Azkenean hiru haurrak altxatzen ziren eta ezkaratzeko atea pasaturik ganberetako eskaileren behean gelditzen ziren, isilik, ea otto noiz hasiko zen beste istorio baten kondatzen eta zein istorio. Laster, amak, sukaldeko atetik ezkaratzean sartuz, hitz bixi-bixiak botatzen zizkien ufako batez eskaileretan goiti pusatu nahi ukan balitu bezala.

- Ama! Pettanen bigarren istorioa entzun nahi dugu! Gero joanen gira!

Ama, bere tokira itzuli orduko, Pettan berriz kondatzen hasten zen.

Aitak supazterreko sua zainduz, istorioa segitzen zuen. Amatxi, bizkarra xut, burua doi bat makurtua, begiak hetsirik ad-adi entzuten arizen.

Ondoko goiz batez, eskolako bidean, alaba gehienak bi anaiei salatu zien goizean ama entzun zuela aitari galdegiten:

- Errazu eta, barda Pettan noiz joan zen hemendik? Nanod ibionodasb.

- Ez dakit, ori, erantzun zion aitak. Nik ximiniako sua bildurik joan naizelarik, biak hemen utzi ditut, solasean.

Anaia gazteenaren jakin-nahiari ihardesteko, arrebak aitortu zien noizbait zurrumurru batzuk entzun zituela auzoan kurritzen, baizik eta Pettan amatxiren isileko maitalea izana zela, duela aspaldi eta amatxik ere atxikimendu berezi bat bazuela Pettanentzat. Bainan garai hartan, betebeharrak manaturik eta bizi moldeek beharturik amatxik aitaxi zenarekin ezkontzea onartu zuela.

Eta horra! Aitaxi hilez geroztik Pettan maizago heldu zela bere betiko adiskidearen ikustera. Amatxik ere atsedean hartzen zuela bere lagun zaharraren bisitekin harekin eleketa aritzea arras gustukoa zuelako.

- Aaaaaa?, erran zuen mutiko gazteenak, Beraz hau izan daiteke amatxik eta Otto Pettanek halako batean kondatuko diguten istorio pollita, ez dea hala?